



TOLOSAKO  
UDALA

# BANDOA

## TOLOSAKO UDALERRIAREN ITXIERA PERIMETRALA

## CIERRE PERIMETRAL DE TOLOSA

Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren urtarilaren 18ko Ebazpenaren arabera, Tolosa lehendakariaren urtarilaren 12ko 1/2021 Dekretuan aurreikusitako neurriak aplikatzeko eraginpeko udalerrien artean sartzen da, azken 14 egunetan COVID-19a dela-eta kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua 500ekoa edo hortik gorakoa delako 100.000 biztanleko. Hori dela eta, 2021eko urtarilaren 19tik murrizketa batzuk aplikatuko zaizkio, horien artean, honako hauek:

- *Udalerraren itxiera perimetrala; hortaz, udalerrian mugatu egiten da jendearen sarrera eta irteera, dekreto horretan ezarritako salbuespenekin: osasun-zentroetara joatea; lanbide eta lan-betebeharra; bizilekura itzultzea; adinekoen, adingabeen eta mendekoengun laguntza eta zaintza; eta abar (ikus dekretua).*
- *Itxi egingo dira ostalaritzako establecimientos de hostelería y restauración.*
- *Debekatuta dago eskola-kirola eta taldeko kirola egitea, baina jarraitu ahal izango da gimnasioetan, kirol klubetan edo kiroldegietan programatutako ikastaroak edo jarduerak egiten, orain arte bezalaxe.*

Horrez gain, herritarrei gogorarazi nahi diegu zirkulazio askea mugatuta dagoela 22:00etatik 06:00etara, eta une honetan ahalik eta gehien saiatu behar dugula erabilera publikoko edo pribatuko guneetan familia edo/eta gizarte-bilerarik ez egiten (inoiz ez 6 lagun baino gehiago), distantzia sozialari eusten (1,5 metro), maskara erabiltzen, eta higienearako eta babeserako gainerako neurriak hartzen, horiexek baitira kutsatzeak geldiarazteko tresna egokienak.

La Resolución de la directora de Salud Pública y Adicciones de fecha 18 de enero determina la inclusión de Tolosa entre los municipios afectados por la aplicación de las medidas previstas en el Decreto 1/2021 de 12 de enero, del lehendakari, *por tener una Tasa de Incidencia Acumulada de casos positivos por Covid-19 en los últimos 14 días igual o superior a 500 por cada 100.000 habitantes*, lo que hace que se le apliquen algunas restricciones, a partir del 19 de enero de 2021:

- *El cierre perimetral del municipio*, quedando limitada la entrada y salida de personas del municipio, con las excepciones marcadas en dicho Decreto (asistencia a centros sanitarios; obligaciones profesionales y laborales; retorno al lugar de residencia; asistencia y cuidado de mayores, menores y dependientes; etc. Ver Decreto).
- *Se cerrarán establecimientos de hostelería y restauración.*
- *Queda prohibida la práctica del deporte escolar y deporte en grupo.* Sí se podrá seguir realizando cursos o actividades programadas en gimnasios, clubs deportivos o polideportivos tal y como se venían realizando

Además, recordamos a la ciudadanía *la limitación de la libre circulación entre las 22:00 y las 06:00 horas*, así como que, es en estos momentos cuando más debemos hacer por evitar reuniones familiares y/o sociales (nunca más de 6 personas) en espacios de uso público o privado, mantener la distancia social (1,5 metros), el uso de mascarilla, y demás medidas de higiene y de protección, como mejores herramientas para frenar los contagios.

Tolosan, 2021eko urtarilaren 18an

ALKATEA

Olatz Peon Ormazabal